

Atze ala "H"?

Arantza Leniz "Xixili"

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2014ko sari leiketa. Irugarren saria

Asun eta Juli nire teillapean bizi diran laurogei urtetik gorako alargun bi dira. Beti dabilz ara ta ona: astelen eta eguaztenetan eskulanak egitera joaten dira kultur etxera, martitzenetan salsa eta merenge dantzatze-
ra, asteburuetan ugerlekura ere... Ogei urteko askok gura izango leukie arek dauken kemena eukitea.

Iaz Benidormetik izan ziren, nagusientzat antolatzen diran bidaietako baten joanda. An bilbotar batzuren lagun egin ziran eta, eurekaz batzearren, Bilbora joaten dira sarritan. Baten baño geiagotan suertatu naz eurekaz, tren geltokirantz doazela. Laster igartzen jake noiz doazen uriburura, egun orretan inoiz baño dotoreago jazen diralako. Oitura ori gurean be bageunkan: Bilbora joaterakoan domeketako erropak jantzi bear genduzan. Asun eta Julik ondiño oitura ori ez dabe galdu.

Pasadan astean, eurak eskillaratatik berantz eta ni gorantz, etxerantza niñoiara, aurkitun nebazan. Uleak apainduta, ezpanak gorriz margoztuta eta dotore-dotore jantzita joiazan biak.

Pasadan astean, eurak eskillaratatik berantz eta ni gorantz, etxerantza niñoiara, aurkitun nebazan. Uleak apainduta, ezpanak gorriz margoztuta eta dotore-dotore jantzita joiazan biak.

- Bilbora zoaze, ala?

- Bai, zelan dakizu ba?

- Oso dotore ikusten zaituedalako.

- Ba bai, Bilbora goaz erosketak egitera - esan eustan Julik-. Datorren illean illobatxu gazteenaren Lenengo Jaunartzea ospatuko dogu eta egun orretarako zapata barriak erosi gura dodaz. Ibilli naz billa



erriko dendetan, baña gustukorik ez dodanez aurkitu, Bilbora goaz biok.

- An ziur gustukoak aurkituko dozuzana, dagoan beste denda-gaz...

Eta biak ariñeketan, gaztetxu biren moduan, kolarretik urten eben agur esanez.

Gaur goizean, eskillaretan barrero Juli aurkitu dot, baña orain-goan bakarrik.

- Zer, Juli, zelan beiñolako erosketak?

- Ondo. Erosi nebazan oiñetakoak, baña asko kostatadiñost Julik barrezka.

- Zer ba, gustukorik ez?

- Gustukuak bai eta prezio kontuan be ondo, baña...

Orduan, barrezka, Julik kontatu deust gertatutakoa. Bilbon, zazpi kaleetan ondo moldatzen dira lagun biak. Ango dendak ondo ezagutzen dabez eta artez joan ziran eurei asko gusatzen jaken zapata-denda batera. Sartu ziran barrura eta jende asko egoanez, itxaroten egon bear ziran naiko denporan. Alako batean, libre gelditu zanean, dendari gazte bat urreratu jaken, galdetuz:

- Buenas tardes ¿Qué desean, señoras?

- Pues yo, señorita, quería unos "sapatos" de la talla 38, de color negro, y sin "atze".


- Perdone, señora, no le he entendido. ¿Qué me ha dicho que quería?

- Pues, como te he dicho, quería unos zapatos sin "atze"...-barrero Julik.

Julik esaldia amaitu orduko, dendariak arrituta esan eutson:

- Señora, si "zapato" no lleva "h"!

Ori entzuterakoan, Julik, aserre bizian, bere lagunari esan eutson:



Ipuin sariketa

- Olakorik! Zer pentsatzen dau neskato onek ba? Gu iñuzenteak garala? Zelan izango dira ba zapata guztiak atze bakoak? Ara, or apalean dagozanak, geienak zarratuak dira eta oiñetako punta irekidunen bat be egongo da. Ea, ea atze bakorik ikusten dodan eta erakutsiko deusat neska lotsabako orreril!

- Lasaitu zaitetz, Julitxu. Gu geu be ez gara ondo manejetan gazteleraz eta... Agian aurre irekidun oiñetakoei sandaliak esaten jaken moduan, atze bakoak be guk ez dakigun izenen bat eukiko dabe. Txokoloak ez dira izango, ezta?

- Ez, Asun. Txokoloak takoi potolodun oiñetakoak dira, erizainak eta erabiltzen dabezelakoak. Nik orrelakorik ez dot gura. Nik zapata takoidun fiñak gura dodaz, Jaunartze egunean dezentente joan bear dot eta.

- Juli, itzi neuri. Zu artegaduei zagoz dendariagaz barrero berba egiteko eta.

Juli eta Asun berbetan egozan bitartean, dendaria beste bezero batengana joan zan eta aregaz amaitu arte lagun biak pazentziaz berari itxaroten egon ziran. Dendaria libratu zanean, Asun beragana urreratu eta esan eutson:

- Señorita, perdone a mi amiga que creo que no se ha explicado bien, pero lo que ella quiere son "sapatos" de "meter ras"- Asunek dendariari esku bat bestearen ganean jarrita aurrerantza eginez iru-lau bider.

- Para meter así, señorita- eskuekaz barrero argi-argi azaldu gurean.

Juli, pasadizua kontatzerakoan, barrearen barreaz ia arnasa barik gelditu da. Ni, neu be, arek biak, diran modukoak izanda, dendariaren aurrean imajinatuta bakarrik, barre-zantzoka asi naz, begietatik negar anpuloak dariola.

- Juli, eta azkenean, lortu dozu atze bako oiñetakoak erostea?-galdetu deusat.

- Bai, laztana, ez dozuz ikusten ba?- eta eskumako ankea jasez altzatuz erakutsi deustaz atze bako oiñetako takoi altodun baltzak.

